

# Irozgarritzea



**Jakoba Errekondo**

Posta elektronikoa:  
mandio@zerain.eus

Zuhaitza landatu berria da. Berarekin batera aldamenean sartu dugun hesolari lotu eta alde ederrean itsatsiko da. Zazpi haizeekin jolasean eta ekaitzekin dantzan ikasten duen artean, sustraiek, hazi eta hazi, eutsi eta eutsi, luze-zabal-sakonean ederki miatuko dituzte inguruak bizitzeko hazkurri bila. Lurrari lotzen eta atxikitzen den artean, hesolaren lana ez da nolana hikoia. Zenbaitek estu-estu lotzen diote zuhaitza: okerreko hutsegitea. Lotua baina mugitzeko adina lasai izan behar du. Hara-honako horrek sustraitzera lagunduko du, baita etorkizunean bakarrik bizitzera ohitzera ere. Baina lotua, sendo errotu arte eusteko, alegia. Behin baino gehiagotan, askotan, ikusi izan dut euskailu lanetarako jarritako hesola bera itsasten eta eutsi beharreko zuhaitza barregarri utziz, bera baino indar eta kemen gehiagoz hazten. Sahatsa (*Salix sp.*), platanoa (*Platanus x hispanica*) eta asiakazia (*Robinia pseudoacacia*) iaioak dira egur hutsetik erroak egin eta itsasten, apareju ederrak!



JAKOBA ERREKONDO

Zuhaitzen batek, zuren batek, egurren batek emango du hesola. Baita fruituak bildu asmoz moiltzeko joko duen haga ere. Eta baldoa, eta taketa, eta pazota, eta makila, eta estaka, eta parda, eta zurrakaitza, eta parra, eta barda, eta masteleroa, eta tantaia, eta hestanga, eta paldoa, eta astamakila, eta habea, eta estrongoa, eta baranda, eta ziria, eta masta, eta apeoa. Eta irozgarri duen edozein, ostiko edo zutiko.

Zuhaitzak eta arbolak gaztetan behar dute hesola laguntzailea, baina baita zahartzaroan ere. Zuhaitz zahar handi ongi zainduaren adar luzeei eusteko agaiak jartzen zaizkio. Gure moduan, zahartzean ere umetu egingo dira, non-bait... Mutur biko agai, txardengoa (xardangoa, sardangoa...) izango da zuhaitzak zahartzaroan izango duen makulu onena. Agai maite du, baita ere, fruituz mukurudatorren sasoian fruitu-arbolak. Fruitu koxkorak hazten diren eran adarrak makurtzen dira, eta, gutxien uste denean, ustel: krakateko bat eta urtetako arbola elbarrituta. Zut eta gora ba agaiak! ■

## IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

**Kaixo Jakoba.** Zuhaitzak aldatzeko sasoia dela irakurri berri dizut; nire limoiondoa lekuz aldatzeko ere garai ona al da? **Ontzi handi xamar batean daukat, baina haizeak etengabe botatzen zuela-eta, Gabonez geroztik paretaren kontra daukat estu-estu. Ez dut lurrik baina eskatuko nuke lur pusketa bat hura landatzeko. Zer iruditzen zaizu?**

**Ana Aizpurua (Aginaga)**

Kaixo Ana. Zuhaitzak eta fruitu-arbolak aldatzeko sasoian gaude, bai. Negu partean hostoak galdu eta soiltzen direnak, aurten dugun eguraldia dela-eta, egokiena otsail amaierako ilbeheran egitea litzakete, otsailaren 18tik martxoaren 3ra.



ANNA-CC BY

Aldiz, negu partean hostajeari eutsi eta jantzita jarraitzen dutenak, zure limoiondoaren gisan, udaberri aldera aldatzen dira. Aurten apirileko ilbeheran egitea gomendatzen dizut, 13tik 26ra bitartean.

Limoi on!